



**JOKU ARAUDIA**  
2006ko abuztuaren egunerapena

2006ko irailak 1etik indarrean sartuta

**LIBURUAREN AKATSEN ZERRENDA**

**LIBURUAREN 4. ORRIALDEA****II. kapitulua. Zeharkako jokoaren arauak.****1. atala. Arau orokorrak**

1. azpiatala. Aurkezpena eta hasierako zozketa.
2. azpiatala. Sakea.
3. azpiatala. Jokoaren nondik norakoak.
4. azpiatala. Faltak.
5. azpiatala. Jokoaren gorabeherak.
6. azpiatala. Tantoen arteko atsedenaldiak.
7. azpiatala. Lesioak.
8. azpiatala. Beroketa.
9. azpiatala. Partidak bertan behera uztea eta atzeratzea.
10. azpiatala. Partidak berandu hastea.

11. azpiatala. Ordezkoak eta ordezpenak **LIBURUAN EZ DAGO**

---

**LIBURUAREN 9. ORRIALDEA**

**1. Artikulua.-** Arauak ezartzeko esparrua. - Araudi honen bidez EAEko lur-eremuan Euskal Pilotako kirol-modalitatearen jarduera arautuko da.

Zenbait lehiaketetan, azterketak egiteko asmoz araudia aldatu nahi badute, Euskadiko Euskal Pilota Federazioko zuzendaritza organoek agiri honetan ezarritako arauen aldaketak onartu ahal izango dituzte aldi baterako.

Profesional mailako partidetan, lehiaketa ofizialetik kanpokoak direnak, enpresa jaialdi moduan antolatutakoak, intendenteak, partida orekatzeko asmoz, lehiaren baldintzak zehazteko ahalmena izango du. Nolanahi ere, egingo diren aldaketa guztiak plazaratuak izango dira partida hasi baino lehen. **LIBURUAN EZ DAGO**

---

**LIBURUAREN 10. ORRIALDEA**

Neurrien arabera, **hiru** motatako ezker paretako frontoiak bereiz ditzakegu: **AKATSA LIBURUAN**

---

## LIBURUAREN 15. ORRIALDEA

### I. kapitulua. Pilotalekuak oro har.

**3. Artikulua.** – Baldintza orokorrak. – Pilotalekuak egiteko material bereziak erabili behar dira. Material horiek pilotaren talka behar bezala jasateko gai izan behar dute. Horrenbestez, harrizko edo porlanezko blokeak, edo horien antzeko ezaugarriak dituzten materialak erabili behar dira. Hormek ez dute hegalik, ertzik, irtenunerik edo elementu irregularrik izan behar, izan ere, erabat lauak eta leunak izan behar dute. Era berean, zorua eta kontrakantxa parez pare egongo dira, euren artean inolako mailarik gabe. **AKATSA LIBURUAN**

---

## LIBURUAREN 19. ORRIALDEA

Ezkerreko hormako frontoi luzeetan eta II. frontoi laburretan (36 metro), frontisean jokatzeko hiru txapa daude: Bat horizontala da; zorutik 10 m-ra dago frontisaren altuera mugatuz, eta hortik gora jotzen duten pilotak ez dira ontzat hartzen. Bada beste txapa horizontal bat ere; bigarren txapa hau eta lehen aipatu duguna paraleloak dira, eta txapa honen goiko ertza zorutik metro batera dago. Txapa horren goiko ertzetik behera jotzen duten pilotak ez dira ontzat hartzen. Hirugarren txapa, berriz, goitik beherakoa edo bertikala da, eta frontisaren zabalera mugatzen du; ezker paretatik 11 m-ra izan behar da. **LIBURUAN EZ DAGO**

---

## LIBURUAREN 31. ORRIALDEA

**21. Artikulua.-** Deskribapena .- Pilotek, pasakakoek, gomazko paletakoek eta frontenisakoek izan ezik, kiskia daukate. Kiskiak, halaber, bolatxo bat izan dezake barrualdean, jokamolde batzuetan material batekoa eta beste batzuetan beste batekoa. Kiskia kotoizko edo artilezko geruza batez inguratzen da, eta hori guztia larruz estali. Larruzko geruza “zortzi” itxura daukaten bi zati josiz egiten da. Pala edo ohizko palako, erremonteko eta zesta puntako pilotek larruzko geruza bi dituzte; barrualdekoaren zeregina azpian daukan materiala babestea da.

Pilotak kolore desberdinetakoak izan daitezke, beti ere, pilotalekuko hormen kolorearen araberakoak; izan ere, pilota hobeto ikusteko asmoz, pilotaren eta hormaren arteko kontrastea bilatu behar da. Hormak kolore ilunekoak badira, pilota argia erabili behar da; hormak argiak badira, ordea, pilota ilunagoa. Piloten kolorea egokia ez bada (kontrasterik egiten ez dutelako), baztertu egin daitezke.

Jokamolde bakoitzeko piloten ezaugarriak eranskinetan daude zehaztuta.

**Pilotaren diametroa neurtzeko jostura hartu gabe egingo da. EZ DAGO LIBURUAN**

---

**22. Artikulua.**- Kopurua, aurkezpena eta egin daitekeena. – Oro har, epaileak 6 (4<sup>1</sup>) pilota izango ditu saskitxoan, partidari zehar pilotarietara nahi dutena aukera dezaten.

Profesional mailako eskuhuska binakako partidetan, saskian 6 pilota egon behar dira. **EZ DAGO LIBURUAN**

---

#### LIBURUAREN 47. ORRIALDEA

4. atala. Pasaka.

**27. Artikulua.-1.** Trinketeetan jokatzeko den joko zuzen bakarra da. Jokoa bi bikotek hartzen dute parte, aurrez aurre eta trinketea erditik (zeharka) banatzen duen sarea dutela erdian. **AKATSA LIBURUAN**

---

#### LIBURUAREN 51. ORRIALDEA

**31. Artikulua.** Tantoaren hasiera.

2. Aurreko tantoa irabazi duen taldeak egingo du sakea.

Sakea edozein jokalarik egin dezake. Pasa, falta-erdia edo beste edozein arrazoiengatik jokoa dagoen tantoari berriro hasieratik ekin behar bazaio, sakea pilotari berberak egin beharko du, erreminta eta pilota berberaz (41. artikuluan zehaztutako kasuan izan ezik). **AKATSA LIBURUAN**

3. Aurkariari sakea egitera doala aditzera eman ondoren sakatzaileak, sakea egiteko asmoz, punpa egiten badu edo sakeko marra gainditzen badu, sakea hasitzat emango da. Sakea egin baino lehenagoko punpa sakea egiteko asmoz egin den ala ez jakiteko, epaileen irizpidearen arabera erabakiko da. Hasita dagoen sakea ezin da bertan behera utzi berriro hasteko. **LIBURUAN EZ DAGO**

---

#### LIBURUAREN 52. ORRIALDEA

**32. Artikulua.** Pilota aukeraketa.

2. Pilotarik aldatzen ez bada, tantoen arteko tartean sakatzaileak ez du pilota aurkarietara emateko beharra; dena dela, eskatzen badiete, eman egin behar diete. Gerta liteke aurkarietara eskatzea pilota denbora gehiegi galduz; epaileek saihestu egin behar dute hori. **AKATSA LIBURUAN**

---

**LIBURUAREN 55. ORRIALDEA**

**43. Artikulua.** Pilota manipulatzeko. Pilota ezin daiteke busti; halaber, pilotaren kanpoaldeko ezaugarriak ere ezin dira aldatu. Pilota babesten duen koipea kentzea eta margotzea dira egin daitezkeen gauza bakarrak. Nolanahi ere, jokoan jartzeko orduan pilotak lehor eta azalean inolako elementurik gabe egon behar du. **AKATSA LIBURUAN**

---

**LIBURUAREN 58. ORRIALDEA**

**53. Artikulua.** Hasierako unea. Lesioei buruzko arauak pilotariak (titular eta ordezkoei) izena aktan ematen duten unetik aplikatuko dira. **(LIBURUAN EZ DAGO)**

---

**LIBURUAREN 83. ORRIALDEA**

Pilotarien jantziek zuriak edo gerrikoaren kolorekoak izan behar dute. Galtzetan eta gonan izan ezik (erabat zuriak izan behar dute), beste jantzi guztietan bi koloreak nahas daitezke (gorria-zuria, urdina-zuria). Pilotarien jantziek ezin dute beste kolore batekoak izan; dena dela, badago salbuespen bat: kolore hori jantzietako publizitatearen zati denean. Talde edo bikote bateko kide guztiek berdin jantzita egon behar dute une oro (jantzietako markaren logoa, kontratatutako markaren logoa eta kluba edo ordezkatzeko duten anagramaren logoa salbu). **LIBURUAN EZ DAGO**

---

**LIBURUAREN 87. ORRIALDEA**

**97. Artikulua** – Jokabidea eta jarraipena. – Partida jokoan dela, entrenatzaileak ezin dira kantsan sartu, ez eta partidarako prestatutako pilotak ukitu ere.

Entrenatzaileei buruzko datuak aktan jasoko dira **partida hasi aurretik. LIBURUAN EZ DAGO**

---